

---

## **PSE-EEK eta EAJ-PNVk osatutako gobernu-taldeak agintaldiaren azken urteari ekingo dio, gobernu-programaren % 90 gauzatzen ari dela**

Dagoeneko 3 urte igaro dira PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek gobernu-taldea osatu zutenetik eta 2019-2023 aldirako Andoaingo gobernagarritasunerako akordioa itxi zutenetik. Taldea osatzen duten kideek 3 urteen balantze oso positiboa egin dute, covid19ak modu garrantzitsuan baldintzatua izan bada ere.

Maidere Lainez alkateak “oso balorazio positiboa” egin du legegintzaldiko hirugarren urte honi buruz “pandemiak moteldu zituen proiektu batzuk jarri ditugu martxan, eta gobernu-programako ekintzen % 90 baino gehiago hasita daude. Indartsu eta oso aktibo sentitzen gara. Geratzen zaigun urte honetan, Andoain hobetzeko eta andoaindarren ongizatea ekarriko duten jarduerak eta zerbitzuak martxan jartzeko lanean jarraituko dugu egunero”.

Mari Jose Izagirre alkateordea bat dator balantze ona egitearekin, “ekintzek eta zifrek bere kabuz hitz egiten dute”. Nabarmendu duenez, “pandemiaren osteko suspertze sozio-ekonomikoa, ingurumen-klima erronka eta kalitatezko zerbitzu publikoak indartzea dira gobernuaren ekintza gidatzen ari diren premisak”.

### **BETETA DAUDEN KONPROMEZUAK**

- Eguneko Arreta Zentroa abian jarri da.
- Ama Kandidaren hirigintza-garapena bultzatzen jarraitzen da. Dagoeneko sinatu da hitzarmena sustatzailearekin, eta gaur egun hirigintza-prozeduraren azken fasean gaude. Etxeberrietako hirigintza-garapenean lanean jarraitzen da, berroneratzea bultzatzeko.
- Arrate pilotalekuaren ordutegia luzatu egin da. Pilotalekua etenik gabea irekia egongo da eta ez du eguerdian itxiko. Gainera, aurten ere abuztu osoan egongo da zabalik. Udako jardueren sarrera-ordutegia ere luzatu da, gurasoen kontziliazioan laguntzeko.
- Partaidetza-prozesu bat jarri da abian, genero-ikuspegitik hiri-diagnostiko bat egiteko eta, horrela, udalerriko puntu beltzen mapa eguneratzeko.
- ZAINTEK zerbitzua abian jarri da eta baliabide gehiago jarri dira Etxez Etxeko Arreta Zerbitzurako, gure adinekoak beren familia-ingurunean modu autonomoan bizi ahal izateko.
- Pandemiaren ondoren, berriro jarri zen martxan entzute aktiboko prozesu parte-hartzaile herritarra “ANDOAIN ELKARLANEAN.”
- Leitzarain bailarako habitatei eta uraren kalitateari buruzko alde aurreko azterlanak egin dira, bailararen potentzialtasunak eta hobekuntza-puntuak ezagutzeko aukera eman digutenak, bailara Parke Naturalizat hartzeko helbururantz urratsak egin jarraitzeko.

## Andoingo Udala

---

- Hiru eremu sortu dira, non txakurrak aske ibil daitezkeen, parte hartzeko prozesu baten bidez. Eremu horiek hobetzeko eta balizko eremu berriak aztertzeko lanean jarraitzen dugu.
- Haur eta nerabeekin eta beste erakunde batzuekin batera, haurrei tratu ona emateko tokiko plana argitaratu eta etxe guztietara bidali da.
- 2022an abian jarri zen aurrekontu parte-hartzaileen lehen prozesua, 250.000 € bideratuz, eta abian jarri da jada 2023ko edizioa, beste 250.000 €-rekin. Berritasun gisa, edizio honetan, proposamenak egiteko fasean 12 eta 15 urte bitarteko haurrek eta nerabeek ere parte hartu ahal izango dute.
- Andoainen langabezian dauden pertsonen kontratazioa sustatzeko hirigintza-garapen berrietan instalatzen ari diren enpresekin hitzarmenak sinatzen jarraitzen dugu
- Herritarrei informazioa eman zaie (etxe guztietara triptiko bat postontzietan jarriz), 112 aplikazioarekin eskura dugun "sexu-erasoa" botoia edo BIDE-SEGURUA modua ezagutu dezaten.
- Emakumeen elkarteekin eta jai eta ostalaritza batzordeetako ordezkariekin batera, jaietan erasoak prebenitzeko protokoloa landu da. Herriko eta auzoetako jaietara begira, gune moreak eta gaueko autobuseko zerbitzua jarri dira martxan.
- Andoingo zainketen egoerari buruzko diagnostiko bat egin da, eta, laster, lan-prozesu parte-hartzaile bat abiaraziko da, diagnostiko horretan proposatutako ekintzak gauzatzeko.
- Kirol-jardueren eskaintza handitu egin da: 2021-2022 ikasturtean: gimnasia eta Pilates ikastaroa, 65 urtetik gorakoentzat, aholkularitza pertsonalizatua fitness gelan (entrenatzaile pertsonala saioka eta banakako entrenamendu-programatan). 2022-2023 ikasturtean: haurdunentzako gimnasia ikastaro berria, 65 urtetik gorakoentzako dantza eskolak eta 14 eta 16 urte bitarteko gazteentzat eskaintza handiagoa.
- Hainbat ekintza antolatu dira emakumeek kirolean parte har dezaten bultzatzeko: emakumeen pilota-proba eta emakumea eta kirolari buruzko erakusketa eta hitzaldia.
- Alokairu sozialeko etxebizitzaren eskaintza handitzen jarraitzen da: 4 udal-etxebizitza birgaitu eta hornitu dira (inbertsioa: 150.000 €), eta 2022an beste bi birgaitzea eta ekipatzea aurreikusitako da (inbertsioa: 160.000 €).
- Terrazei buruzko ordenantza onartu da, partaidetza-prozesu baten bidez egina. Bertan, ostalaritzarako zeuden baldintzak hobetzen dira eta aurreko araudiak jasotzen ez zituen alderdiak arautzen dira.
- "Pumptrack" zirkuitua sortu da, aire zabaleko aisialdiko kirol-eskaintza zabalduz.
- Andoingo dendetan eskola-materiala erosteko laguntzak arautzen dituen ordenantza sortu da, eta 15.000 eurora handitu da.

## Andoingo Udala

---

- 2022an, Bazkardoko frontoia birgaitu da, eta 2023an, berriz, Goiburuko pilotalekua berritzea eta egokitzea aurreikusi da.
- Biribilgune bat eraiki da Rikardo Arregi eta Agustin Leizako bidegurutzan. Gauzatze-kostua: 140.000 €.
- Klima-aldaketara egokitzeko plana egin da.
- Argiketarienezako eta hartzaindegiko arkitektoentzako lan-poltsak sortu dira, eta Errenta eta Esakzioen Teknikari lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua egin da.
- Herriko auzoetan udal-zerbitzuen berdintasuna sustatzea, azpiegitura berriak ezarriz: Karrika eta Sorabilla auzoetako komun publikoak egin dira, eta Manuel Lekuona/Aranaztegi inguruneko komun berriaren pleguak prestatzen ari dira. Aiztondo-Karrikako haur-parke berria eta Extremadura kaleko haurrentzako parkea burutu dira. Udalerriko hainbat eremutan argiztapena hobetzea, Leitzarango tuneleko argiak berritzea eta Leitzarano ibaiaren ertzean argiztapen berria jartzea.
- Beterri Buruntzako Mankomunitatea eratzea.
- Hondakinak gaika biltzeko kontzientziazio-kanpaina abian jartzea, informazio triptikoa etxeetako postontzietan banatu da eta edukiontzitik kanpo dauden hondakinetan pegatinak jarri dira, kale-garbitzaileen brigadarekin lankidetzan.
- Turismo aktiboaren aldeko apustua, Leitzarango bisitari-zentroa eta haren eskaintza denbora gehiagoan zabalduz. Bailaran kultur jarduerak txertatzea. LEITARAN ABENTURAREN eskaintza handitu egin da. FERRATA BIDEA zerbitzua martxan jarri da.
- Autobus urbanoa (HIRIBUSA) indartu da, herriko jaietan eta Leitzarano bailarara joateko (Aste Santuan eta udan), eta Calonge eta Olagain auzoetara ibilbidea zabaldu da. Etxez etxeko geldialdi sistema aplikatu da, erabiltzaileek eskatuta.
- Gazteentzako zerbitzuen eskaintzan hobekuntzak sartu dira: GAZTE LOKALAREN zerbitzuak zabaldu dira, udalerrian premia desberdinak dituzten gazteak gizarteratzea indartzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan sustatu da GAZTE TOUREN jardunaldiak burutuz.
- Ingurune hidraulikoa leheneratzeko eta kudeatzeko konpromisoak: uraren euskal agentziarekin (URA) lankidetzan, Galgo presa (papelera) eraitsi da, espezie inbaditzaileak ezabatu dira eta Leitzarano eta Oria ibaietan garbitze lanak gauzatu dira.
- Andoingo liburutegi berria eraikitzeko kokapen alternatiba ezberdinak aztertzen ari da. Aurreikuspenen arabera, uztailean liburutegi mahaia deituko da, azterlanaren emaitzen aurrerapena aurkezteko. Ikerketak aukera hauek aztertzen ditu: Makaldegia, Leizaur parkea eta Maiza zinemak.
- PARKETARRAK egitasmoa martxan jarri da herriko hainbat plazatan, haurren aisialdian euskararen erabilera sustatzeko. 300 lagunek parte hartu dute maiatzeko edizioan, eta udazkenean errepikatuko da programa.

## Andoingo Udala

---

- Martin Ugaldereen jaioturtearen 100 urteak ospatzeko ekitaldi-sorta espezifikoa aurrera eramán da: irakurketa publikoa, Basteron erakusketa, hitzaldiak, ipuin lehiaketaren 25 urteen ospakizuna, eta Anjel Lertxundi idazlearen liburuaren edizioa, Ugaldereen bizitza kontatzen duena. Era berean, Lezo Urreizietari buruzko liburuan parte hartu du Udalak. Martin Ugalde 2022 bekaren edizio berria argitaratu da.
- Martin Ugaldereen udal funtsari balioa ematea: edukien lehen fasearen digitalizazioa osatu da eta informazio horretara sarbidea izateko web tresna bat osatu da. Gaur egun, materialaren eskubideak lantzen ari dira, publiko egin ahal izateko.
- Kultura-ondarea babesteko eta balioesteko neurrien sustapena: urrian aurkeztu zen Andoingo erraldoien gomazko figuren lehen bikotea (Azelain). Aurreikuspenen arabera, aurtén bigarren bikotea osatuko da (Legarra Etxebeste). Baita konpartsaeren materiala zaharbertzeari ekin ere.
- Eraginkortasun energetikorako eta udal-ibilgailuetan kontsumoa murrizteko neurriak: 2 errenergia puntu bikoitz instalatu dira (Udaltzaingoaren aparkalekua eta OPUA zerbitzuen pabiloia) eta 4 ibilgailu elektriko erosi dira.
- ANDOAIN GIDA aurkeztu da: Merkataritza, ostalaritza, zerbitzu eta tokiko industriari buruzko gida.

### **BETETZE BIDEAN DIREN KONPROMEZUAK**

- Gabriel Aresti kaleko urbanizazioa eta saneamendua hobetzeko proiektua idazteko plegua idazten ari dira.
- Udaletxeko beheko solairuan obrak egitea aurreikusten da, bainugela egokitu emateko eta, horrela, udal-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko (aurreikusitako inbertsioa: 150.000 euro).
- Litzitazioa hutsik geratu ondoren, Allurralde kiroldegia handitzeko proiektua aterako da berriro.
- Adinekoen eta gazteen arteko harremana sustatzeko programa bat sortzea aurreikusten da, gazteentzako lan-aukerak eskainiz.
- Aldez aurretik azterketa bat egingo da, estali gabeko igerilekuak non jar daitezkeen zehazteko.
- Udal tramiteak automatikoki egiteko herritarrentzat kutxazain bat jartzeko plegua idazteko prozesuan dago.
- Ikerketa bat jarri da abian Leitzarán ibaian bainatzeko gune batzuk egokitu daitezkeen zehazteko.

## Andoingo Udala

---

- Oria ibaiaren pasealekutik oinezkoentzako zirkuitu bat diseinatzea aurreikusten da, Errotagain eta Karrika arteko zubi berri baten bidez, kiroldegitik jarraituz beste zubiraino.
- Energia Egokitzeko Plan Iraunkorraren barruan, Ondarreta Ikastetxeko galdarak ordeztzeko proiektu bat idatzi da, eta Gizarte Zerbitzuen Anbrosia Olabide eraikineko ingurutzaila eta galdara ordezkatzeko proiektu bat idatziko da.
- Onespren-prozesuan, eraikin eta etxebizitza partikularretan energia eraginkortasuna hobetzeko jardueretarako laguntzak abian jartzea, 60.000 eurokoa.
- Komunitate energetiko bat (eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizpena) eratzeko lehen urratsak egin dira, Allurralde Kiroldegiko estalkiak erabiliz. Udalak eta 150 familiak parte hartuko dute bertan.
- Ekiola energia-kooperatibaren eratzea bultzatuko da, eguzki-energia fotovoltaikoa ekoizteko eta udalerriko 400 familiaren energia-beharrei erantzun ahal izateko.
- Biktima baten ingurunean indarkeriaren pertzepzioari buruzko diagnostiko bat abian jartzea onartu da.
- Leizotz auzoa urez hornitzeko proiektua eguneratzen ari da, auzotarrekin aurrez egindako kontrastearen ondoren. Udatik bueltan, obraren lizitazio-izapideak hasiko dira, 750.000 euroko zenbatekoarekin (aurreikuspenen arabera, obra 2022ko lehen hiruhilekorako errealitatea izango da).
- Miranda pasealekuan ur-parke berri bat eraikitze lanak adjudikatu berri dira, 250.000 euro inguruko zenbatekoarekin (obra uztailean hastea aurreikusten da).
- Illarramendiko udal-pabilioiaren proiektua eta obra-zuzendaritza 105.000 euroan esleitu dira. Behin proiektua amaituta, obra izapidetuko da.
- Belabiko ludoteka berriaren obrak lizitazio-prozesuan daude, 275.000 euroan (2021eko abenduan egindako tramitazioa hutsik geratu ondoren).
- Goikoplazan espazio estali bat eraikitzeko alternatiben azterlana idazteko prozesuan, irailerako osatzea aurreikusten da.
- Udal brigadaren eskutik, Urigainen bizikletak garbitzeko puntu berri bat ezartzeko lanak egingo dira.